

**Artikulu honetan, autoreak hizkuntzaren normalizazioan elbakartasunak duen funtzioa eta garrantzia aztertzen du. Azterketa horretarako, bi iturburu nagusi hartzen ditu. Aspektu teorikoa, batetik, Lluís Aracilen lanetan oinarrituz. Aspektu praktikoa, bestetik, Quebec-eko esperientzia zehatzean oinarrituz, hau da: 1977tik aurrera frantsesetz soilik egindako errotulazio elebakarraren praktika.**

## **ELEBAKARTASUNA JUSTIFIKA AL DAITEKE HIZKUNTZ NORMALIZAZIOAREN IKUSPUNTUTIK?**

**Jacques Maurais**<sup>1</sup>

*Hizkuntzalaria*

Itzultzailea: Joseba Ossa

### **SARRERA**

Artikulu hau neurri handi batean talde minoritarioen egoerari buruz Lluís Aracil soziolinguista katalanak egin dituen gogoetetan oinarritzen da. Aracilen lana oso garrantzitsua da kalitatearen aldetik; ez, ordea, kantitatearen ikuspuntutik, lan gutxi argitaratu baititu. Batez ere artikuluak idatzi ditu, hainbat herrialdeetako aldizkari espezializatuetan, hain zuzen. Azken bi urteotan testu horien bi bilduma argitaratu dira, katalanez idatziak edota itzuliak. Aracilen ikerketek eragindako inspirazioak garrantzi handia izan du Kataluniako hizkuntz normalizazio Legea idatzi baino lehen egin diren eztabaidetan (neurri handi batean gure «Hizkuntza frantsesaren Gutunean» oinarritutako legea, hain zuzen).

Elebakartasunak hizkuntz normalizazioan duen papera aztertzeko bi iturburu nagusi izango ditugu: ikuspuntu teorikoaren aldetik Lluís Aracilen lana, eta ikuspuntu praktikokoaren aldetik, berriz, Quebec-eko esperientzia bat: errotulazio elebakarrarena, 1977tik aurrera frantsesetz soilik egina (na-

hiz eta 1993az geroztik elebakartasunaren esparrua mugatu egin den).

## ERROTULAZIOA: ALDERDI JURIDIKOAK

Errotulazioari buruzko gogoeta soziolinguistikoari ekin baino lehen gauza bat gogoraraztea komeni da: eremu honetan aplikatu diren eta gaur egun aplikatzen diren arau juridikoak.

Hizkuntza frantsesaren Gutunak, 1977ko idazketan, elebakartasun frantsesa inposatzen du errotulazio publikoetan, publizitate komertzialean eta egoitza sozialetan. Salbuespen gisa onartzen da beste hizkuntzaren bat ere, baina «talde etniko jakin baten iharduera kulturaletan» (61. artikulua) eta «atzerriko nazio edo talde etniko jakin bateko produktu tipikoak saltzen dituzten establezimendu berezietan» (62. art) soilik; gainera, «gehienez lau pertsona (ugazaba barne) dituzten enpresetan ere beren lantokiaren barnean frantsesaz gain beste hizkuntzaren bat erabil dezakete errotuluetan» (beraz, kanpoan ere ezin dute), baina «frantsesak gutxienez beste hizkuntzak bezain ikusgarri egon behar du» (60. art). Beste salbuespen bat ere aurreikusuten zen: legeak ez du derrigortzen frantseserako itzulpenik egitea «mezu erlijioso, politiko, ideologiko edo humanitarioetan», baldin eta irabazi asmorik gabeko elkarteak baziren (59. art.); azken salbuespen honen helburua adierazpen askatasuna defendatzea zen, hau da, hiritar orok bere iritzia (politika, erlijio edo filosofia mailan) libreki adierazteko duen eskubidea errespetatzea.

Jakina da xedapen hauek epaitegietara eraman dituztela eta Kanadako Auzitegi Gorenak 1988ko abenduko sententzian «Kanadako Gutuna eskubide edo askatasun ekonomikoetara ez dela hedatzen onartu» ondoren zera erabaki zuela: «adierazpen askatasuna [...] ezin daiteke adierazpen politikora mugatu [...]». Sententzia horrek uko egiten zion pentsakera honi: «adierazpen komertzialak ez du inolako balio indibidual edo sozialik bultzatzen gizar-te libre eta demokratiko batean, eta beraz, ez du babes konstituzionalik merezi» eta beste elementu garrantzitsu bat eransten zuen: «Nahiz eta hizkuntza frantsesak kartel eta errotuluetan nagusitasun argi eta garbia izateko exigitzea egokia izan Quebec-en —irudi linguistiko— frantsesa ematearren, eta beraz, justifikatuta egon, Quebec eta Kanadako Gutunen arabera frantsesa soilik erabiltzeko agindua ez dago justifikatuta» (*Le Procureur général du Québec c. La Chaussure Brown's Inc. et al.*, 1988ko abenduak 15). Zenbait juristaren arabera<sup>2</sup>, garbi dago Quebec-eko legegileek errotulu komertzialean elebakartasun frantsesa inposatzeko duten asmoa (nahiz eta salbuespenak ere izan) ez duela ondo ikusi Kanadako Auzitegi Gorenak. Honen iritziz Quebec-en «hizkuntz irudiak» frantsesaren nagusitasuna isladatu behar zuen, lurralde horretan biztanleen %80k baino gehiagok frantsesez egiten dutelako; interpretazio horren arabera, Biltzar nazionalak hartutako neurriekin «hizkuntz irudiak» egoera demolinguistikoa isladatzen saiatu behar zuen. Baina Quebec-eko legegileek beste helburu bat zuten, sinestuta baitzeuden «paisaia linguistikoak» neurri handi batean baldintzatzen duela frantsesdun ez diren jarrera psikologikoa hizkuntza fran-

1) Egileak eskerrak eman nahi dizkio Richard Y. Bourhis-i, testu honen aurreko bertsio bati buruz eginiko iruzkinengatik.

2) Adibidez, José Woehrling (1993:13): «...azpimarragarria da Auzitegiak (Gorena) benetako 'helburu aldaketa' bati ekin diola [...]. Bai, [...] helburua ez da argi eta garbi hizkuntza honen nagusitasuna ziurtatzea, bere eskusitasuna bai-zik».

3) Hemen esan beharra dago T.S. Eliot-ek bereizketa egiten zuela *kultura satellite* eta *nazio independente txikiaren artean*. Hemen jasotzen den zita Aracilek katalanez emandakoa da, *Dir la realitat* liburuan (178. orr.).

**«Hizkuntza frantsesaren Gutunak, 1977ko idazketan, elebakartasun frantsesa inposatzen du errotulazio publikoetan, publizitate komertzialean eta egoitza sozialetan»**


tsesarekiko; hau da, frantsesa ez dakiten pertsonak errotuluetan esaten dena jakiteko beharra duten heinean zertxobait ikasiko dute, gutxienez ulertu ahal izateko; baina errotuluak eta publizitatea bietan ematen bada, hau da, frantsesez eta ingelesez (edota beste hizkuntzaren batean) ez dute frantsesa ikasteko beharrik sentituko. Bestalde, esan beharra dago elebakartasun frantsesaren arauak salbuespenak zituela hizkuntza frantsesaren Gutunean. Salbuespen horiek leundu egiten zuten elebakartasunaren exigentzia, eta ondorio kaltegarriak neurri handi batean murriztu egiten zituen. Beraz, Auzitegiak ez ditu kontuan hartu bere erabakia hartzerakoan.

Jakina da, hala ere, Quebec-ek ez zuela sententzia hori bete beharrik izan bost urtez, 1988an klausula indargabetzailea aplikatu baitzen, (1982ko Lege konstituzionalean sartua, alegia). Gero, 1993an, Quebec-eko Gobernuak, berriro ere «`n obstant` klausulara» jo baino lehen, errotulazio komertzialen hizkuntz arauak aldatzea erabaki du, elebitasuna ahalbidetzearren. Hor ere badira salbuespenak, eta lehengo elebakartasunaren araua errespetatu beharko dute, besteak beste gutxienez 16 metro karratu dituzten publizitate karteletan eta garraio publikoetako nahiz sarbideetako publizitate komertziala (markesinetan barne); ikus 1993ko araudia, merkataritza eta negozioen hizkuntzari buruzkoa.

**TARTEKARITZA, GUTXIENGOAREN EGOERA ULERTZEKO EZINBESTEKO NOZIOA**

Lluís Aracil soziolinguistak gutxiengoaren egoerari buruz egiten duen go-goetaren abiapuntua T.S. Eliot poetaren saiakera baten irakurketa da. Saiakeraren gaia «kultura satelite» izenez adierazten zuena da (*University and Diversity: The Region, Notes Towards the Definition of Culture* bilduman, 1948). T.S. Eliot idazleak zioenez, «kultura satelitea zera da: arrazoi geografikoak edo bestelakoak direla-eta, beste kultura indartsuago batekin etengabeko harremana duena. [...] Irlanda, Eskozia edo Gales erabat urrundu duko balira Ingalaterratik, Europatik eta mundutik bereizi egingo lirateke [...]»<sup>3</sup> Beste hitzetan esanda, adibidez galeseraz mintzo den pertsonak beste hizkuntza batera jo beharko du (kasu honetan ingelesera) munduko ekoizpen zientifiko, tekniko, literarioa eta abar eskuratu ahal izateko. T.S. Eliot-ek egoera minoritarioaren alderdi tipikoa deskribatzen du hemen, Aracilek *interposició* (tartekaritza) deitzen duena: X hizkuntz komunitatearen eta munduko beste komunitateen arteko harremanak Y hizkuntzaren bitartez pasatzea, alegia. Quebec bezalako inmigrazio-gizarte batean, horrek esan nahi du Z hizkuntza hitz egiten duen etorkinak (italiera, greziera...) ere Y hizkuntza erabiliko duela (ingeleza), X hizkuntzan (frantsesez) mintzo direnengandik edo haiei buruzko informazioa lortzeko ere. Horixe bera da René Lévesque-k intuitiboki ulertu zuena honela esan zutenean: «Nolabait errotulu elebidun bakoitzak zera esaten dio etorkinari: *hemen bi hizkuntza daude, frantsesa eta ingeleza; bakoitzak nahi duena aukeratzten du. Eta zera esaten dio anglofonoari: ez dago frantsesa ikasi beharrik,*

dena itzulita dago». Egia esan zita hau ez doa urrutiegi: tartekaritzak, testuinguru minoritario batean, teoria hutsean utziko du hizkuntza aukeratu behar hori: presio sozialek Y hizkuntza soilik bultzatuko dute, hau da, Quebec-en kasuan ingelesa (indarrak X hizkuntzaren alde orekatzeko lege neurriak hartzen direnean izan ezik, esate baterako etorri berrien haurrei X hizkuntzako eskoletara joatera behartzen zaienean). Egoera hori beheko diagrama honen bidez adieraz daiteke (X hizkuntza minoritarioa da, Y hizkuntza dominatzailea, eta V, W eta Z atzerriko hizkuntzak edo etorkinen hizkuntzak):



Interposizio edo tartekaritza modu desberdinetan adieraz daitezke talde minoritarioaren eguneroko bizitzan. Adibidez, X hizkuntzaren hiztunek joera «naturala» dute —eta antza denez saihestezinezkoa da zenbait kasutan— Y hizkuntzan mintzatzeko (hau da, hizkuntza menperatzailean) atzerriar guztiei (etorkinak barne), baita X hizkuntzan hitz egin nahi dutela esaten dietenei ere, nahiz eta hauek behin eta berriro errepikatu. Beste adibide bat: bere historian zehar frantsesa «tartekaritza» hizkuntza izan da, zeren Rivarol-ek adierazi duen bezala, XVIII. mendean frantsesa izan zen Europako beste hizkuntzek gai ingelesei buruz hitz egiteko erabiltzen zuten hedapen bidea. Tartekaritza fenomenoari buruz beste zenbait gauza ere azpimarra ditzakegu: atzerriko izenak (italiarrak, espainolak...) ingelesten erara ahoskatzea (telebistan edo irratan, hau da, erregistro formalean); atzerriarrei buruz hitz egiterakoan izen ingelesa (edo ingelesetik eratorria) erabiltzea, esate baterako «bosnien» esatea «bosniaque»ren ordez, itzultzaileen artean hain normala den bezala. Hori, hala ere, ez da garrantzitsuena, egoera minoritarioan fenomeno horiek sistematikoak baitira. Eta hori ez da batere harrigarria pixka bat pentsatuz gero: azken finean, itzulpena (ingelesetik frantsesera) gure bizitzako arlo guztiak hartzen duen fenomeno da. Aspaldidanik gertatzen da hori, eta aspaldidanik ohartu izan dira horretaz. Aipamenak ere ugariak dira, bai iraganean eta bai gaur egun ere; baina bat nahikoa izango da ondorengo puntu hau adierazteko:

Izpirituaren adierazpenak Kanadan (hau da, Kanada frantziarrean) normalean itzulpenaren inguruan egiten dira. Kanadiar ertainaren elikadura intelektuala neurri handi batean itzulpenetan oinarritzen da. Gure egunkariek ingelesez jasotzen dituzte berriak, agentzien bidez (...). Itzulpena arlo guztietan sartzen da, gure bizitzako keinu guztiak menperatzen ditu (Pie-

**«Quebec-eko legegileek  
beste helburu bat zuten,  
sinestuta baitzeuden  
«paisaia linguistikoak»  
neurri handi batean  
baldintzatzen duela  
frantsesdun ez direnen  
jarrera psikologikoa  
hizkuntza  
frantsesarekiko»**

---

**«Nolabait errotulu  
elebidun bakoitzak zera  
esaten dio etorkinari:  
hemen bi hizkuntza  
daude, frantsesa eta  
ingeleza; bakoitzak  
nahi duena aukeratzen  
du. Eta zera esaten dio  
anglofonoari: ez dago  
frantsesa ikasi beharrik,  
dena itzulita dago»**

rre Daviault, *Mémoires de la Soc. roy. du Can.*, 3. saila, 38/1, 67. orr.).

Horrelako testuinguru batean bestearen hizkuntza bihurtzen da erreferentzia nagusi, eta ez soilik mundua ikusteko (edo munduaz hitz egiteko), baita norbera ikusteko ere. Horrelako fenomenoak ez da batere ilusorioa; Quebec-en egindako zenbait ikerketek hala frogatzen dute.

### **BESTEAREN BEGIETATIK IKUSI**

Soziolinguistika arloan ospetsu bihurtu den azterlan batean Wallace Lambert, R. Hodgson, R. Gardner eta S. Fillenbaum (1960) ikerlariek «matched-guise» (aurpegia estalita hitz egitea) teknika erabili zuten Quebec-eko ikasleek (jatorri ingeles eta frantziarrekoek, biek) hiztun frantses eta ingelesen aurrean zituzten jarrerak aztertzeko. Entzuleek uste zuten zortzi pertsona ari zirela hitz egiten, baina lau ziren. Lau gizonezko bina testu irakurtzen zituzten, bat frantsesez eta bestea ingelesez (baina testua bera zen). Emaizte frogatu duten bezala, anglofonoek lehentasuna ematen zioten ingelesez irakurtzen zutenei, zeren zazpi ezaugarri emanik puntuazio altuagoa ematen zieten ingelesei frantsesez irakurtzen zutenei baino. Ezaugarri horiek bi ardatzen inguruan biltzen ziren: «statusa» (inteligentzia, anbizioa, eta abar) eta «elkartasuna» (fidagarritasuna, herabetasuna...). Entzule frankofoeok ere puntuazio altuagoak ematen zizkieten hizlari anglofoeoi, eta gainera entzule anglofoeok baino altuagoak. Garai hartako hiztun frantsesek, beraz, bereganatu egiten zuten talde anglofono dominatzaileak eragindako inferioritate «estatusa».

F. Genesee eta N. Holobow ikerlariek 1989an frogatu berbera egin zuten, 30 urte horietan anglofono eta frankofoeoen estereotipoak aldatu ote ziren jakiteko. Lehenengo ikerketan bezalaxe, ikasle anglofoeok puntuazio altuagoa ematen zieten ingelesez mintzo ziren hizlariari, bai estatusari dagokionez, eta bai elkartasunari dagokionez ere. Ikasle frankofoeok, ordea, aldaketa nabarmena erakutsi zuten elkartasunaren inguruko ezaugarrietan, oraingoan puntuazio altuagoa eman baitzieten hizlari frankofoeoi gai horietan. Horrela, iritzi hobea erakutsi dute euren nortasun linguistikoa dagokionez. Hala ere, estatusari lotutako balorazioak 1960an bezalaxe jarraitzen dute: ikasle frankofoeoi eta anglofoeok puntuazio baxuagoa ematen jarraitzen dute frantsesez ari diren hizlariari estatusari dagokionez. Eta emaitza horiek bat datoz munduan zehar egin diren beste ikerketen emaitzekin: norberaren taldeak ebaluazio altuak jasotzen ditu elkartasunaren inguruko gaietan, baina talde dominatzailearen hizkuntzak ebaluazio altuagoak lortzen ditu estatusari dagokionez (ikus Lepicq eta Bourhis, 1994).

Ikerketa hauetan garbi geratzen da talde minoritario edo minorizatuak bere burua bestearen begiekin ikusten duela, hau da, talde dominatzailearen begiekin. «Ispilu efektua» deitu daitekeena da. Hori agerian uzten du «matched-guise» teknikak. Beraz, ez da harriztekoa antzeko egoeretan beste taldeek ere (etorkinek) talde «indigena» Y hizkuntzaren begietatik

ikustea (hizkuntza dominatzailea, ingelesa). Albert Memmi-k egiaztatu zuen bezala (1982:181) «*Klase zuzendariaren ideologia, jakina, neurri handi batean menpeko klaseei ere bereganarazten zaie*».

## GEHIENGOAREN TALDEA GUTXIENGOAREN TALDEKO BEGIEKIN IKUSTEA

Duela hamar bat urtetik hona egoera aldatzen ari dela pentsa badaiteke ere (batez ere etorri berriek beren haurrak eskola frantsesetan matrikulaztea derrigorrezkoa delako) estatistikek erakusten dutenez anglofonoek ingelesa gehiago erabiltzen jarraitzen dute frantsesa baino, bai egunkariak irakurtzerakoan (hirutik bik *The Gazette* irakurtzea nahiago dute frantsesezko egunkariak baino) eta bai telebistako programa edo filmeei dagokienez ere (ikus Hizkuntza frantsesaren Kontseilua *et al.*, 1991, 6.1.2, 6.2.2, 7.2.2, 7.2.3 taulak). Quebec-eko gehiengo frantsesari buruzko informazioak oraindik ere neurri handi batean gutxiengoaren hizkuntzaren bidez bideratzen dira.

## IRTENBIDE BAT: KONTRAPOSIZIOA

Errotulazioaren gaira itzuliz, esan behar da elebitasun integralaren ondorioetako bat bi hizkuntza elkarren ondoan jartzea dela, eta horrela uztea, aukeran. Beraz, ez dago gehiengoaren hizkuntza ikasteko presiorik. Errotulazio komertzialetan elebakartasunak X hizkuntzari (gure kasuan frantsesari) erabilera eremua zabaltzea ahalbidetzen dio, hizkuntza hori ez dakitenei behartu egiten baitie gutxienez zertxobait ulertzera, informazioa bereganatu ahal izateko. Horrek X hizkuntzari aukera berriak ematen dizkio tarteko hizkuntza bihurtzeko, hizkuntza amankomun izateko, Y hizkuntza bezala, baina haren orde. Horrela, beraz, tartekaritza nagusi zen eremu bat ateratzen da. Kontraposizio izena hartzea proposatzen dut, zera adierazteko: zenbait eremutan X hizkuntzatik igaro behar izatea —Y hizkuntzaren leku eta posizioan— zenbait informazio lortu ahal izateko, eta horrela erraztu ahal izateko gehiengoaren hizkuntzaren ikaskuntza, oinarri-oinarrizko mailan bada ere.

Horren aurrean galdera hau egin daiteke: Jokabide hori morala al da? Gai horri erantzuteko ikus Gregory Baum (1993) irakaslearen artikulua, McGill-eko unibertsitatekoa. Galde dezakegu, baita ere, praktika hau beste eremuetara ere zabaldu ote daitekeen. Hizkuntza frantsesaren Gutunak jadanik aurreikusi ditu elebakartasun frantsesa beharrezkoa duten zenbait eremu: esate baterako, errotulazio komertzialaz gain errepideetako seinaleak (hiztegia nahiko «itxia» dutenez, kantitatearen aldetik, bederen) eta gobernuzko erakundeen izenak. Azken kasu hauek neurri sinbolikoaren itxura dute; Jean Laponcek (1984) esaten zuen bezala *langue-épinglettæ*eko fenomenoaren antzeko zerbait da. Irlandan ere badugu fenomeno horren adibide garbia, eta gainera oso nabarmena: bizitza pu-

4) Hemen erantsi beharko litzateke elebakartasuna denboran ere mugatu beharra dagoela. Logikoa da: behin egoera «normalizatuz» gero, elebakartasunaren araua desagertarazi egin daiteke. Zoritxarrez, ordea, al daketa linguistikoez oso denbora luzez irauten dute, eta beraz, emaitzak lortzeko, elebakartasunaren araua epe luzez aplikatu ahal izateko aukera eman beharko litzateke.

**«Horrelako testuinguru batean bestearen hizkuntza bihurtzen da erreferentzia nagusi, eta ez soilik mundua ikusteko (edo munduaz hitz egiteko), baita norbera ikusteko ere»**

blikoaren zenbait kontzeptu irlandez soilik ematen dira. Esate baterako ez da idazten *prime minister*, (ingelesez) *taoiseach* baizik; Parlamentuari ere *Oireachtas* deitzen zaio, eta ez *Parliament*, eta abar. Hala ere, hizkuntza jakin baten erabilera sinboliko horrek ezin du gauza handirik egin interposizioaren fenomenoaren aurka borrokatzeko. Bestalde, esan beharra dago eremu askotan ezin dela hizkuntzen erabilera mugatu (bai arrazoi humanitarioengatik eta bai adierazpen askatasunari bere zentzu tradizionalen zor zaion errespetuagatik ere); edo alderantziz, hau da, zenbait zerbitzu hizkuntza bat baino gehiagotan lortzearen alde borrokatu behar dela (osasun zerbitzuak eta komunikabideak, adibidez). Beraz, eta ikus daitekeen bezala, neurri sinboliko hutsen (Irlandakoak bezala) eta gizarte demokratikoak ezartzen dituen mugen artean geratzen den eremua nahiko txikia da. Testuinguru horretan errotulazio komertzialak eremu egokia dirudi, beraz, elebakartasuna aplikatzeko, horrek ez baitu oztopatzen ideia erlijioso, filosofiko edo ideologikoen adierazpena (adierazpen askatasunaren kontzeptio tradizionalaren arabera) eta gehiengoaren hizkuntza sustatzea ahalbidetzen baitu, oinarritzko ikaskuntza bultzatuz eta jende guztiaren aurrean gizarte frantsesdunaren irudia emanez.

Ez dago disimulatu beharrik: errotulazioa borroka-eremua da, bertan baitago jokoan frantsesaren eta ingelesaren arteko indar erlazioen kontserbazioa edo transformazioa. Ikuspuntu honetatik ikusita, elebitasun soila estrategia bihurtzen da, errotulazioaren bidez (eta errotulazioan bertan) ingelesaren aldeko hierarkizazioa bultzatzen duen estrategia, alegia. «Frantsesa nagusi den» elebitasunaren estrategiek ñabardurak erantsiko dizkiote agian egoera horri, baina benetan ba ote dute indarrrik egoera horri aurre egiteko? Ez al da izango ingelesaren nagusigoa onartzeko beste modu bat?, agian pixka bat leundu eta disimulatuz, baina egoera desorekatua onartuz? Oso posiblea da elebitasunak (baita «frantsesaren nagusigoarekin» ere) ezer egin ahal ez izatea interposizioaren fenomenoaren aurrean, beti ere gehiengoaren hizkuntza saihesteko aukera ematen duelako.

## ONDORIOAK

Artikulu honetan elebakartasunak hizkuntz normalizazio proiektu batean duen lekua aztertu dugu, kasu konkretu batetik eta Lluís Aracil-ek eskainitako marko teorikotik abiatuz. Garbi ikusi dugu elebakartasunak ezin duela printzipio unibertsal izan, gizarte demokratikoan, bederen. Hala ere, gure ustez frogatu dugu printzipio hori modu jakin batean aplikatuz (eremu batzuetan bakarrik),<sup>4</sup> erabilgarria izan daitekeela leku justuagoa emateko historian zehar menperatua edota konkurrentzia desorekatuan bizi izan den hizkuntzari.

Elebakartasuna, eta batez ere errotulazio komertzialaren elebakartasunak, «diskriminazio positiboaren» antzeko praktika da, eta beraz, hizkuntz normalizazio programaren elementuetako bat. Ikuspuntu etikotik onar-

tuta dago neurri konpentsatorioak hartzea egoera ez normalak aldatzeko (historiaren erroreetatik eratorriak); auzitegiek diskriminazio positiboaren baliagarritasuna onartu egin dute, eta hori da, hain zuzen, 1977az geroztik errotulazio komertzialarekin egin dena (gaur egun ere praktikatzen jarraitzen dute, nahiz eta 1993an 86ko legea indarrean ipini; bai, gogoratu beharra dago lege horrek elebakartasun frantsesari eusten diola, nahiz eta lehen baino hedadura txikiagokoa izan).

Errotulazioa da, frantses hiztunen begietan, Quebec-en hizkuntz irudia hobekien adierazten duen elementua. Horrela, borroka sinbolikoaren eremu bihurtu da. Hala ere, okerra litzateke eremu sinbolikoa denez garrantzi txikia duela pentsatzea. Pierre Bourdieu-k (1992:22) azpimarratu duen bezala, «...sistema sinbolikoak munduak sortutako ekoizpen sozialak direla onartzen badugu, eta ez dutela harreman sozialak isladatu soilik egiten, baidik eta harreman horiek eraikitzen edo eratzen laguntzen dutela, orduan derrigorrez onartu behar dugu muga batzuen barruan mundua bera aldatu daitekeela bere errepresentazioa aldatuz».

#### BIBLIOGRAFIA:

ARACIL, Lluís V. 1982, *Papers de sociolingüística*, Bartzelona, Edicions de la Magrana.

-, 1983, *Dir la realitat*, Bartzelona, Edicions Països Catalans.

BAUM, Gregory. 1993. «Réflexions éthiques sur la loi 101», *L'Action nationale* 83/6, 1993ko ekaina, 731-740. orr.

BOURDIEU, Pierre (eta Loïc J.D. Wacquant). 1992. *Réponses*, Paris, Seuil.

CONSEIL DE LA LANGUE FRANÇAISE. 1991. *Indicateurs de la situation linguistique au Québec*.

GENESEE, F eta HOLOBOW, N. 1989. «Change and Stability in Intergroup Perceptions», *Journal of Language and Social Psychology* 8:17-38.

LAMBERT, Wallace; HODGSON, R.; GARDNER, R. eta FILLENBAUM, S. 1960. «Evaluational Reactions to Spoken Language», *Journal of Abnormal and Social Psychology* 60:44-51 orr.

LAPONCE, Jean. 1984. *Langue et territoire*, Presses de l'Université Laval, Quebec, CIRB.

LEPICQ, Dominique eta BOURHIS, Richard Y. 1994. «Psychologie sociale et aménagement linguistique: le cas du Québec» in Pierre Martel eta Jacques Maurais, *Langues et sociétés en contact*. Mélanges en l'honneur de Jean-Claude Corbeil, Tübingen, Niemeyer.

MEMMI, Albert. 1982. *Le racisme*. Gallimard. Paris, "Idées" bilduma.

WOEHLING, José. 1993. *La conformité de certaines modifications projetées au régime linguistique de l'affichage public et de la publicité commerciale découlant de la Charte de la langue française avec les chartes des droits et libertés*, Quebec, Conseil de la Langue Française.

---

**«Emitza horiek bat datoz munduan zehar egin diren beste ikerketen emaitzekin: norberaren taldeak ebaluazio altuak jasotzen ditu elkartasunaren inguruko gaietan, baina talde dominatzailearen hizkuntzak ebaluazio altuagoak lortzen ditu estatusari dagokionez»**